

Kultur astea Enpresa Zientzien Fakultatean

2008/04/17

Aste honetan zehar, Enpresa Zientzien Fakultateak bere Kultur Astea burutuko du bai Oñati eta bai Bidasoako Campusetan.

Aurreikusita dagoen egitarauak, astelehenetik ostiralera banatuta dauden hainbat ekintza jasotzen ditu.

Apirilak 14, astelehena, gastronomia eguna: Pintxo lehiaketa eta Kalimotxo eta garagardo dastaketa lehiaketa.

Apirilak 15, asteartea, sexualitate eguna: Tuppersex bilera "La maleta roja" eta sextabaida.

Apirilak 16, asteazkena, musika/erritmo eguna: perkusio tailerra, DUGUKOLO taldearen erakustaldia.

Apirilak 17, osteguna, kirol eguna: herri kirol txapelketa, bazkaria eta mus txapelketa.

Apirilak 18, ostirala, laburmetrai eguna: laburmetrai emanaldia eta amaiera.

Apirilaren 18an, Bidasoako Campusean perkusio tailerra, pintxo lehiaketa eta laburmetrai emanaldia egongo dira.

